

## Aberri Eguna 1923

TXILLARDEGI



70 urte joan dira, bai. Eta gaur, barkatu egin-gonauze, itzultzaile-lana egingo du zuentzat. Bide-nabar kondairagile-lana egin ez.

«Badago gaurdian 'nacionalista' izeneko jende zuzeneko organizazio bat. Eta gaurdian-ekin hasia da separatismoa erasotzen. Espainiarekin bat egitea eskatzen du, eta bat egitea desiratzen. Abertzaletasun independentistaren kontra, foruzaleek eta autonomistek bultzatzen dituzten elkarteak laguntzen ditu; eta lotsa izpirik gabe 'separatista' deitzen dituenak larritzen.

«Zer gertatuko da, hortaz, halako batez mementu hitzak iritsiko direnean? Ezen, egunen batez, autonomia zabala aitortuko baitie Espainiakatalunyar, Galiziar... baita Euskadiri ere.

«Orduan, Espainiak berak hartaturik, 'euzko harmada ofiziala' osatuko dute 'unionistek'; eta hauek orduan, horretaz baliaturik, su-ta-gar, kupidari gabe, 'rebelde separatista vasco' delakoak erasoko dituzte...

«Eta orduan, berek, gure aberkideek, bai, afusiatu egingo gaituzte...

«... Gazteria abertzale hori! Bazko-Egun honetan, otoi, jaiki bedi zuen arima, eta Abertarren Askatasuna eta Independentzia lortu arte iratzar».

Atzo idatzia dirudi. Gaurko abertzale suharen batek mamiturik eta plazaraturik.

Ez horixe! Irlandako lehenengo saldukerien larritasuna xuxen neurturik, Eli Gallastegik idatzi zuen hori gutzia 1923ko Apirilaren. Orain dela 70 urte! 'Aberri Eguna' asmatu baino lehenago!

Aberri-Egun bezperago honetan, eta traidoreen ustelkeriak dena itozten bide duelarik, errepika dezagun Gallastegi profetaekin: *Gora Euskadi Askatuta!!*

## Beti Real!

JOSU LANDA



### ATOTXAKO

futbol zelaia. Joan den igandean, Minutuko isil-lunea aginduta zegoen Juan Borboittarraren doluzinez, baina tristura gutxi harmailetan. Ohi baino ikusle gutxiago zutitu ziren tribunetan, eta zutik zeuden asko ziztuka eta txiloka aritu ziren. Errebantxaren garaia zen, eta poztu gainera baten batzuk, neu barne, mendeku fimiñoekin konformetzen ohiak gaude eta. Partidua hasi, eta hara non oharzten naizen atezainen atzean dauden pankartek diotenaz: «Beti Real», «Reala aurrera». Monarkiaren kontra daudenak. Reala gora eta Reala behera ari. Kirol kronistek diotena egia dela dirudi: Atotxan golak sartzea gero eta errazagoa da.

Ez da nire asmoa utopiarik burugogor plan-teatzea, baina komeni da zailaren eta ezinaren artean bereiztea. Gure aurrekoen ekarria behar moduan estimatzea futbola baino kirol minoritarioagoa da, baina ez da doakoa gogoratzea 1931n, Espainiako Errepublikan aldarrikatuta, Real Sociedad futbol taldeak izena aldatu zuela, eta Donostia deiturakoa bilakatu. Hori bai, «Real» grazia galduta, 34-35 denboraldian bigarren mailara jaitsi zen, eta 35-36koan hirugarrenera. Patua aldaketan kontrakoak izaki, atrebentziak ordaindu egin behar. Gerra zibilak itzularazi zizkien donostiari itzuraz zegoen izen zaharra eta lehen maila, ohorezkoak biak.

Utopiak utopia, zertara hasi orain izen aldaketak proposatzen? Kirol elkarteen lege berriak ez luke horretarako biderik emango, erreferendum bat antolatzea bihurtzea da, eta, oroz gainera, Peña Mujikak bufanda eta elastiko berriak egin beharko lituzke... gastu gehiegi dagoen krisi ekonomikorako.

## ● Diario 16

### Paradisu fiskalik Euskal Herrian?

Bertako zaharrenek oraindik ere gogoan dute frankismo gorienean Nafarroa eta Arabak —dikadorearentzat, Bizkaia eta Gipuzkoa ez bezala, ez ziren «probintzia traidoreak» izan zuten erakargarritasun fiskala; Erresuma Zaharra bere foruen babesean, eta Gasteiz oso «kontzertu ekonomiko» onuragarri bat erabiliz. Baldintza fiskalak oso onuragarriak izan ziren eta enpresa askok, batez ere Bizkaia eta Gipuzkoakoek, beren balibideak arabar eta nafar abantailen atbera eraman zituzten. Orain, bete-betean harrapatu gaituen krisi orokorra dela eta, Ardanzaren Gobernuak berreraigite plan bat hitzartu du EAeko hiru probintzietako diputazioekin eta horretan 1993 eta 1994. urteetan sortutako enpresek hurrengo hamar urteetan Sozietate Zergarik


ez ordaintzea dago aurkikusia. EAJren erabakiak gainontzeko alderdi nazional eta autonomikoak eta, oro har, Estatuko gainontzeko ere aho zabalik utzi ditu. Ez da gutxiagorako. Guztiak Euskadira?

GALERIA

## ● EL MUNDO

### Pasio garaiko aisialdia eta aisialdiarekiko pasioa

Horrelako egunetan, badirudi Espainia herri bat izan beharrean bertan bi daudela. Alde batean, lan egiten duen edo gaizki bizi den Espainia dago, edo langabezian egon eta gutxi kobratzen duena (kobratzen badu), edo pensio txikiak jasotzen dituen, edo gerritako gero eta gehiago estutu behar duena hilaren amaierara iritsi nahi badu. Bestean oparo bizi den Espainia gelditzen da, behi gizenen garaian bere koka-



FORGES / EL MUNDO

lekuak finkatu eta orain krisian zehar lehen mailako bagoian doana, egutegiak utzitako zirkuiturik nimitioena opor arrakala bihurtzeko erabiliz.

Paradoxa honek arazo etiko bat —nazio osoarena den elkar-tasunik ezaren arazo— uzten du agerian, baita soilik ekonomiko den beste bat ere. Izan ere, esatea legoke espainiar gizartearen ongien bizi diren sektoreetan asko direla pentsatzen dutenak krisia gainditzeko erarik egokiena denbora pasan, ganba eta martini artean, isas pasealeku bateko terrazan ba-

tean eserita egotea dela, hariak eta azkenean ekonomi atzeraldiaren hilotza aurretik iragaten ikusi arite. Era berean, axola gutxi duela ehundaka lan ordu gaitzek, hots, ez ekointzek, norberaren negozioaren konkurrentziasunak ez baitu zerikusirik herri osoarenekin. Irizpide horrek —nahiz eta aitortu gabea izan errealia dena— Espainian horrenbeste eragina duen bitartean, hainbestetan aldarrikatutako «Europar sartzeko» hori berritsukeria besterik ez da izango.

EDITORIALA

## ZUZENDARIARI

### Jarraik Lurgorri

Lurgorri ala Ikasle Abertzale Batzordea, ez dakigu zein izen duzuen atseginago baina ezin duzue ukatu gauza berbera zaretetik eta frogak soberan dudela. IAB-Lurgorri (EGI) izenpeko kartelak ez ditugu guk asmatu eta halakoak behin baino gehiagotan ikusi ditugu. Zeuek egin izan dituzue gisako kartelak EAJko jendeak ikasle abertzalez osatutako beste antolakunde batekin nahas ez zaitzaten. Ukatuko al duzue?

Gezur borobila da Gobernu Vascogadotik dirurik jaso ez duzuela dioenean. Izan ere, ukatzen al duzue Lurgorri Ikasle izeneko elkartek 90eko Ekainaren 25ean eskatutako 2.330.000 pezetatik 1.200.000 pezeta jaso zituela? Guk ez dugu informazio hau asmatu, Jarraikok Eusko Jaurlaritzan egin dugun galdera bati erantzunez jaso baitugu, EAJren esku dagoen Kultur Saitetik hain zuzen.

Lurgorri eta Ikasle Abertzale Batzordea (IAB) gauza berdina izaki. IABk ere diru publikoa jaso du (IAB izena erabiliz), 90eko uztailaren 26an, abenduaren 31n eta 92ko abenduaren 30ean 3.150.000 pezeta jaso duzue gutzira. Esan bezala, Lurgorrik jaso duena batzuek.

Zuen gutunean deitura nahastu egiten dugula diozue, baita geure hitzak frogatzeko du-

kumenturik ez aurkeztea leporatu ere. Giza-joak. Guk duela bi aste eskeinitako prentsaurrean banatu genuen eskatzen duzuen dokumentua.

Dokumentu horretatik atera daitekeen beste ondorioirik ere bada, jakina. EAJren egoitzen edo Batzokien helbideak erabiliz dituzten taldeek, emandako dirulaguntzen % 17a jaso baitute.

Guk ez dugu esango EGI eta IAB-Lurgorri gauza bera direnik, ezta antolakunde bi horiek egiten dutena zipaioakume edota Juan Guerra-kume eskolan ikasi denik ere. ETA Jarraien anaita zaharra dela esateak ez du hankik ez eta buztanik; hori eztabaida desbideratzea da eta ez gara horretan sartuko ez baitu eztabaida garbi garatzen uzten.

EGiko jendearekin elkarlana egiten baduzue, oso ondo ba, baina zuen jokamolde euren eta EAJren bizio ustelen gainean eraiki nahiz bazabiltzate —ekologia edota pakearen izenean bada ere—, horrek dakarren ondorioa ere asmitu beharko duzue. Zuen esku dago, bestela ustelkeriak jan egingo zaituzte ere eta hortik, behin ohitu ezkerro, oso zaila da ateratzea. Unibertsitatearen ikasgai berria omen da hau. Tumatxa hiii!

ION SALABERRIA  
Donostia

### Elebitasuna omen da bidea

Martxoak 20. Victoria Eugenia Antzokia. Anje Duhalderen kantaldia. Bertara abiatu ginen kantari honen abesti gozoak entzuteko irrikak. Sarrerak hartu eta... haserret: «Teatro Victoria Eugenia - San Sebastian. Delantera de balcón. Fecha 20 mar. 1993. Tarde. Nº...». Euskal Herrian geunden, bai. Donostian. Gipuzkoako hiruburuan. Hiribururik euskaldunenean. Ez zen euskararen aztarnarik paper hartan. Calahorrako inprimategi batean egindakoak zirelako ote zen? Elebitasuna omen da irtenbidea. Baina elebitasuna eraldadura eskaintzen digute. Euskararen erabiltezagatik fundamentalistak garaia diote. Beraien gaztelania erabilizten dutenean demokratok omen. Donostiako agintariak eta dagokionari ohar bat: euskaraz bizi nahi dugunak asko gara eta zuek zaretze goizetik gaureraino eskubide hori ukatzen diguzuen bakarrak, zuek gaztelaniaz lasai asko bizi zaretzen bitartean. Ni ere kaltetua naiz!

KOLDOBIKE MUIÑAIN  
Zarautz  
(Gipuzkoa)

## GAIA JARRITA



### Jose Luis Ugarte

Itsasontzian irten zenuen zure herritik aparte, mundu osoa zeharkatzeko indar eginez jo ta ke. Azkenaldian sufritu duzu ez baitzenbiltzan hain fuerte, baina halere lortu duzu ta mila zorion Ugarte.

IRATXE IBARRA

## Egunkaria

Batzokia, P. 2504 E., Lege Gordaitua; SS 800/90



OJDren IKUSKATZEA BIDERATUA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Gorenea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: INAKI URIA

Zuzendariordea: LUZIAN ETXEZAHARRETA

Zuzendari Komertziala: JUAN INAZO HARTSUAGA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitatea: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Talferria: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02.

Pabilioa / 20160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso

Jakintza, 16-1 / 20010 Donostia / ☎: 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Arabak: San Antonio, 20-1 ezker. / 01005 Gasteiz / ☎: 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. lekuma. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 503 Posta kutxatila. / 64105 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11